



IRABAZI ITURRIAK

1. ERABILERAGATIKO KUOTA

→ Banakakoa:

Ez-ohiko bezeroentzat, kafe-liburutegian igarotzen duten denboraren arabera ordainduko dute. Lokalean sartzean eta irtetean fitxatu beharko duten ticket bat emango zaie eta ticket-ean sartu diren orduan agertuko da. Horrek 1 €-ko prezio finkoa izango du, gehi tasa gehigarri bat, bertan egondako orduen arabera. Irtetzean, prezio finkoa (1 €) eta orduko 0,5 €ko gehigarria ordaindu beharko dira.



Ohiko bezeroek txartel bat erabiliko dute. Txartel hori bertan kargatu ahal izango da eskudiruz edo Ikascoffeearen aplikazioaren bitartez (Bizum/kreditu txartela), eta 3 €-ko balioa izango du. Bezeroa Ikascoffee-ra sartzen den bakoitzean, txartelean duen diruaren kopuruari zerbait kenduko zaio, Barik txartela balitz bezala.

* Errentagarriagoa da txartela erostea, luzaroan merkeagoa ateratzen da (sarrera=1,25 €), eta Ikascoffeeen sartzen denean soilik ordaindu beharko delako eta ez han igarotako orduengatik.

2. AKTIBOEN SALMENTA

Kafetegiko edariak / *Charamel*-eko pastelak / erosi nahi diren liburuak = aparte kobratu Kafetegi zonaldean ordaintzeko aukera izango dute bezeroek Bizum, txartelez edo eskudiruz.

3. ALOKAIRUA

Beste modu bat hitzaldi-aretoak alokatzea izango da. Hitzaldiak emateko, ekitaldiren bat antolatzeko edo liburuen firmak egiteko espazio zabala behar duten elkarte edo erakundeek erreserbatu ahal izango dituzte, eta alokatzeagatik tarifa bat ordaindu beharko diote enpresari. Ordaintzeko bi modu :kreditu-txartela edo banku-transferentzia.



4. PUBLIZITATEA

Ordaindutako publizitatearen bidez ere irabaziak lortuko dira. Bertan idazleek eta argitaletxeek kartelak itsasteko aukera izango dute, liburu berri baten edo best-seller baten argitalpena ezagutarazteko.

Planeta

PREVENTA EXCLUSIVA

DEL 19 AL 31 DE AGOSTO

¡ LLÉVATE !
EL LIBRO + LA TAZA MÁGICA

SBS librería internacional

Anne Andrés, Araia Arce, Eider González, Peio Irastorza eta Asier Novella

